

Konrado Mugertza jn.
Javier del Campo jn.
Gaizka Gabantxo jn.
Iosu Gangoiti jn.
Miren Izagirre and.
J. Ramón Kortabitarte jn.
Gonzalo Larruzea jn.
Raimundo Rubio jn.
Manu Udaondo jn.
Eva Blanco and.
Idazkari teknikoa.

07/16 IRIZPENA

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2007ko urriaren 18ko saiora bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde Iraunkorrrak aho batez eman du ondoko irizpena **Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legea aldatzeko Lege Proiektuari buruz.**

I.- AURREKARIAK

Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen 33. eta 34. artikuluek Euskal Eskola Publikoaren ikastetxeetako zuzendarien eskumenak arautzen dituzte, baita zuzendaria aukeratu, izendatu edota kargugabetzeko baldintzak eta prozedura ere.

Beste alde batetik, Hezkuntzari buruzko Lege Organikoak, ikastetxe publikoetako zuzendaritzari buruzko 5. kapituluan (131. artikulutik 139.era), zehaztu egiten ditu zuzendarien eskumenak, zuzendaria aukeratu, izendatu edota kargugabetzeko baldintzak eta prozedurak, eta zuzendaritza eginkizunaren onarpena.

Maiatzaren 13ko 116/1997 Dekretua aldatzen duen apirilaren 19ko 91/2005 Dekretuak ikastetxe publikoetako lagun bakarreko gobernu organoak aukeratzeko prozedura arautzen du. Baina Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak (EAEAN) Dekretu horri indarra kentzeko epaia eman zuen (EHAA, 2007/02/06), eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bete egin zuen epaia (EHAA, 2007/02/12).

Sailak Agindu berri bat argitaratu zuen (EHAA, 2007/04/20), ikastetxeetako lagun bakarreko gobernu organoak aukeratzeko. Aitzinsolasak adierazten duen bezala, 91/2005 Dekretuari indarra kendu ondoren, aukeratzeko prozesua aurreko arauak erregulatzen du, alegia, 116/1997 Dekretuak, eta honen arabera ere, sistema Ordezkaritza Organo Gorenak aukeratzea da, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legeak zehazten duen bezala. Agindu honi ere indarra kendu dio auzitegi horrek.

Horren ondorioz, Ikastetxeetako Zuzendaritzak ekainaren 29ko ebazpen baten bidez jakinarazi zuen zuzendariak eta aukeratze prozesu horretatik ateratako gainerrako karguak urtebeterako izendatuko zirela, ohiz kanpo, 2008ko abuztuaren 30era arte.

II.- EDUKIA

Lege proiektu honek sei artikulua, xedapen gehigarri bat eta azken xedapen bat ditu. Halaber, ikastetxeetako zuzendariak egindako memoria ere igorri da.

Lehen artikulua Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 30. artikuluko 3. atala aldatzen du, lagun bakarreko organoen iraupena zehazten duena, alegia.

Bigarren artikulua Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 31.2. artikuluko e) atala aldatzen du, hau da, Ordezkaritza Organo Gorenak zuzendaria aukeratzeko dituen eskuduntzei buruzkoa.

Hirugarren artikulua 31.2. artikuluko g) atala aldatzen du, hau da, Ordezkaritza Organo Gorenak gatazkak ebazteko eta zigorrak ezartzeko dituen eskuduntzei buruzkoa.

Laugarren artikulua Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 33. artikulua aldatzen du, zuzendaria aukeratzeko prozedura eta kargua betetzeko edota kargugabetzeko baldintzak zehazten dituena, alegia.

Bosgarren artikulua Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 34. artikulua aldatzen du, hau da, zuzendariaren eginkizunak jasotzen dituena.

Seigarren artikulua Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 40. artikulua aldatzen du ikasketa buruaren eta idazkariaren izendapenari dagokionean.

Lehen Xedapen Gehigarriak zehazten du Lege hau aplikatzeko dela Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuetan, Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 9ko 5/2002 Lege Organikoa aplikatzeko den alderdietan izan ezik.

Azken Xedapenak Legea indarrean noiz jarriko den zehazten du.

III.- BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK

Euskal Eskola Publikoari buruzko legea aldatzeko lege proiektuari buruzko irizpen hau ematerakoan, Euskadiko Eskola Kontseiluak 6 ataletan antolatu ditu bere balorazioak eta proposamenak:

1. Gizarte solaskideekin kontsultatzeko datak
2. Euskal Eskola Publikoari buruzko legea aldatzeko justifikazioa
3. Legea aldatuta bilatzen diren helburuak
4. Artikuluak
5. Zuzenketa txikiak
6. Lexiko kontuak

1. Gizarte solaskideekin kontsultatzeko datak

Lege proiektu hau 2007ko uztailaren 10ean igorri zitzairen gizarte solaskideei, eta hauek 20 egun balioduneko epea izan zuten beren alegazioak helarazteko. Epe horiek xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen 8/2003 Legeak zehaztutakoa errespetatzen duten arren, data horiek ez dira eskola-egunak eta zaila da eztabaida antolakundeetan bideratzea, beraz, ez dira datarik egokienak.

2. Euskal Eskola Publikoari buruzko legea aldatzeko justifikazioa

Lege proiektuaren aitzinsolasean hiru arrazoi ematen dira 1993ko Euskal Eskola Publikoari buruzko legea aldatzeko:

- Urte hauetan metatutako esperientzia.
- Foro, mintegi eta lan talde guztietan ateratako ondorioak.
- Euskal Eskola Publikoaren ikastetxeetako Zuzendarien Elkarteek eta ikasleen Gurasoen Elkarteek Hezkuntza Administrazioari helarazi dizkioten dokumentuak.

Hiru arrazoi hauek kontuan hartzekoak dira, baina zuzendari kargura iristeko prozesua arautzen duen azken araudi autonomikoei –91/2005 Dekretua eta oraintsua-goko Agindua (EHAA, 2007-04-20)- indarra kendu die Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak epai banatan, irizpen honetako Aurrekarien atalean zehazten den moduan, hori dela eta, zuzendariak eta aukeratze prozesu horretatik ateratako gainerako karguak urtebeterako izendatu behar izan dira, ohiz kanpo, 2008ko abuztuaren 30era arte.

Horrenbestez, premia arrazoi bat ere badago, alegia, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak emandako azken arauari indarra kendu izana.

Beste alde batetik, benetan aplikatzen den araudi esparrua, hau da, Hezkuntzari buruzko Lege Organikoa, aipatzea falta da aitzinsolaseko zioen justifikazioan. Izatez, Ikastetxe publikoetako zuzendaritzari buruz ari den IV. tituluko IV. kapitulua ia erabat jasotzen du, 132. artikulutik 139.era (ez du jaso zuzendaritza taldeaz diharduen 131. artikulua).

3. Legea aldatuta bilatzen diren helburuak

Lege proiektu honek bi helburu bilatzen ditu: zuzendari kargua indartzea eta aukeraketa-sistema bat ezartzea pertsonarik egokiena izendatuko dela ziurtatzeko. Zehazten du halaber zuzendari karguak funtsezko garrantzia duela Euskal Eskola Publikoaren ikastetxeetako antolaketan eta funtzionamenduan, irakaskuntzaren kalitatean, eta autonomia era egokian garatu eta erabiltzerakoan.

Lehenengo helburuari, alegia, zuzendari kargua indartzeari, erreparatuta, lege proiektuak handitu egiten ditu haren eskumenak, baina, *zuzendariaren eskumen berriekin zuzeneko loturan ikastetxeetako gainerako gobernu organoek eduki behar lituzketen eginkizunak ez dira aldatzen*, Ordezkaritza Organo Gorenak zuzendaria aukeratzeko eta ikasleen zigor prozesuetarako dituen eskuduntzak izan ezik (2. eta 3. artikulua, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 31.2. artikuluko e) eta g) atalak aldatzen dituztenak, hurrenez hurren).

Partikulariki, *lege proiektuak zuzendariari ematen dizkion eginkizun berriak* (5. artikulua, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 34. artikulua aldatzen duena), Euskal Eskola Publikoari buruzko Legean zehaztutakoen aldean hiru motatakoak dira:

1. Ebaluazioa eta pedagogi lidergoa, aipatutako artikuluko atal hauetan:

- h) “Ikastetxeko barne ebaluazioak bultzatzea eta kanpo ebaluazioetan zein irakasleen ebaluazioetan laguntzea”, eta
- c) “Zuzendaritza pedagogikoa egitea, hezkuntza berrikuntza sustatzea eta ikastetxearen hezkuntza proiektuaren helburuak lortzeko planak bultzatzea”.

2. Bizikidetzaren arautzea, atal hauetan:

- f) “Ikastetxean bizikidetzaren bultzatzea, bitartekotza bermatzea gatazkak konpontzeko, eta kasuan kasuko zigor neurriak jartzea ikasleei indarrean dagoen araudiaren arabera, gai honetan ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak dituen eskumenei kalterik egin gabe”.
- g) “... eskola giro egokia sustatzea ikasteko eta ikasleen prestakuntza integrala-jakintza zein balioetan- bultzatuko duten ekimenak gauzatzeko”.

3. Kanpo harremanak, inguruarekin zein Hezkuntza Administrazioarekin, atal hauetan:

- g) “Lankidetzaren bultzatzea bai familiarekin, bai erakundeekin eta bai ikastetxeak inguruarekin dituen harremanak erraztuko dituzten antolakundeekin ere”.
- a) “... hezkuntza komunitatearen planteamenduak, nahiak eta premiak Hezkuntza Administrazioari helaraztea”.

Euskadiko Eskola Kontseiluaren iritzian, zuzendariaren eskumen gehikuntza eraginkorra izan dadin, aldi berean eginkizun horiek ikastetxeko gainerako gobernu organoetan ere garatu behar dira. Printzipio hau nahitaezkoa da partaidetzan oinarritutako edozein antolaketa planteamendu orokorretan, eta are gehiago Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen kasuan, izan ere, bertan zehazten den eskumen banaketaren arabera, gobernu organo kolektiboei (Ordezkaritza Organo Gorena eta Klaustroa) dagozkie erabaki gehienak, eta zuzendaritzari akordio horiek betearazteko eginkizuna ematen dio.

Hartara, Kontseilu honen iritzian, nekez bultza dezake zuzendariak ebaluazioa baldin eta, aldi berean, Ordezkaritza Organo Gorenari eskumenak ematen ez bazaizkio finkatutako plangintzaren egikaritzea ebaluatzeko (urteko programazioa, kudeaketa proiektua...), eta ikastetxearen funtzionamendu orokorra, ikasketa errendimenduaren bilakaera, eta barne zein kanpo ebaluazioen emaitzak aztertu eta baloratzeko, beste eskumen batzuen artean, edota Klaustroaren eskumenekin gauza bera egiten ez bada.

Argudio berak balio du ikastetxeetan bizikidetza hobetzeko helbururako. Zailtzarik gabe, aurrerapauso bat da zigorrak lehen ekinaldian aplikatzeko eginkizuna bizkortzea, Ordezkaritza Organo Gorenetik zuzendaritzara igarota, ondoren, hala badagokio, Ordezkaritza Organo Gorenak berrius dezakeelarik. Aitzitik, zuzendariak nekez garatu ditzake 34.f) eta 34.g) artikuluetako aldaketetako gainerako eskuduntzak –bizikidetza bultzatzea, eskola giro egokia sustatzea eta bitartekotza bermatzea gatazkak konpontzeko– baldin eta, horiekin batera, eginkizun berriak ematen ez bazaizkie Ordezkaritza Organo Gorenari eta Klaustroari: neurriak eta ekimenak proposatzea ikastetxean bizikidetza bultzatzeko eta gatazkak era baketsuan konpontzeko, eta ikastetxeko antolaketa eta funtzionamendu arauetako buruzko txostenak ematea dira, beste batzuen artean LOE Legeak planteatzen dituenak.

Aparteko atal bat behar litzateke zuzendariari ematen zaion pedagogi lidergoaren eginkizun berriak ikasketa burutzan eta zuzendaritza taldean oro har izan ditzakeen ondorioak aztertzeko, azken hau Euskal Eskola Publikoari buruzko Legean gobernu organoen artean sailkaturik dagoela.

Laburbilduz, Euskadiko Eskola Kontseiluaren iritzian, lege proiektuak ikastetxeetako gobernu organo kolektiboen funtzioak handitu behar ditu zuzendariaren eskuduntzak handitzen dituen arlo berberetan, eskumen gehikuntza hori eraginkorra izateko ezinbesteko baldintza da eta.

Bestalde, *lagun bakarreko beste karguen izendapenari* dagokionez, Lege proiektu honek k) atalean dio zuzendariari dagokiola: “Hezkuntzako eskumena duen Sailari proposatzea lagun bakarreko beste gobernu organoen eta ikastetxeko gainerako karguen izendapena eta kargugabetzea, irakasleen Klaustroari eta Ordezkaritza Organo Gorenari horren berri eman ondoren”.

Baina azken bi organo hauetako funtzioetan ez dago aldaketarik Lege proiektu honetan. Eskumen berri bat sartu behar litzateke Ordezkaritza Organo Gorenari eta Klaustroari buruz ari diren 31.2. eta 35.2 artikuluetan hurrenez hurren: “Zuzendaritzarako hautagaiak eta hauek aurkeztutako zuzendaritza proiektuak ezagutzea”.

Ikastetxeetako antolaketarekin eta kudeaketarekin lotura nabarmena duen beste gai bat *administrazio langileena* da.

Beste organoei esleitutako eskuduntzen oreka berrezarri behar da, adierazi dugun bezala, hori baita lehenbiziko baldintza zuzendariak eginkizun berriak bete ahal izateko. Zuzendariak –eta zuzendaritza talde osoak– behar beste denbora eta eskumen izan behar dute funtzio berriak bete ahal izateko, hori da bigarren beharrezko baldintza. Lege proiektu honek hiru helburutan jartzen du arreta: kargua erakargarri bihurtzea, aukeratutako hautagaia gaitasunik handienekoa izatea, eta haren lanean etengabeko hobekuntza bilatzea.

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeek ez dute administrazio langilerik, hortaz, irakasle batek betetzen ditu egiteko horietariko batzuk –Administrazio Kudeaketaren Arduraduna (AKA) – lanaldi osoan edo lanaldi partzialean, ikastetxearen tamainaren arabera. Haur eta Lehen Hezkuntzan, beraz, argi zehazteko dago zuzendaritza karguek betetzen dituzten eginkizunen artean, zeintzuk diren administraziokoak edo laguntzakoak –berariazko langilerik bat ere edo gutxi dagoelako–, eta zeintzuk diren kualifikatuak, hau da, zuzendaritzari dagozkionak, legeek aitortzen duten bezala, izan ere, azken hauek bultzatu behar dira, alta, beste faktore honek ere murriztu egiten ditu.

Euskadiko Eskola Kontseiluak behin baino gehiagotan adierazi du bere iritzia gai honen inguruan. 2001ean, Kontseiluak berak “Zuzendaritzari buruzko Azterlana” egin zuenean, lehenengo proposamena hauxe zen: “Zuzendaritza lana erraztu behar duten egiturazko elementuetako bat administrazio langileak dira. Beharrezkoa da halakoak ematea Lehen Hezkuntzako ikastetxeei eta halakorik ez duten DBHko ikastetxeei”.

Aurreikuspenen arabera, etorkizun hurbilean zaila izango da erretiratzeko diren irakasleak –gero eta gehiago– ordezkatzea, hortaz, administrazio lanak berariazko langileei emanaz gero, gaur egun irakasleek betetzen dituzten AKA plazak libratzen lagunduko luke horrek eta, erabateko irtenbidea ez izanik ere, arazoa leuntzen lagunduko luke.

Azken batez, Kontseilu honen iritzian, ezin dira arautu zuzendaritza taldeko eginkizunak –kualifikatuak, kargu bakoitzarentzat–, baldin eta administrazio lanetatik bereizten ez badira eta, horretarako, ezinbesteko baldintza da beharrezko administrazio langileak hornitzea halakorik ez duten ikastetxeei. Kasu honetan, behartzen gaituena ez da lege organikoa, ikastetxeetako zuzendaritzaren eta kudeaketaren logika baidik.

4. Artikuluak

4.1. Ordezkaritza Organo Gorenaren eskumenei buruz:

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 31.2.e) artikulua aldatzen duen 2. artikuluan, zuzendariaren izendapena atzera botatzeko aukera aipatzen da, baina ez

da zehazten zein den hori egiteko behar den gehiengo kualifikatua. Indarrean dagoen erreferentziazko artikuluan bi hereneko baldintza ezartzen da, LOE legeak 127.d) artikuluan egiten duen bezala. Kontseilu honek uste du zehaztasun hori jaso behar litzatekeela.

4.2. Aukeratzeko prozesuari buruz:

a) Hautagai izateko baldintzak

Lege proiektu honen arabera, aukeratzeko prozesuan parte har dezakete bai karrerako funtzionario diren irakasleek bai ikastetxeko irakasgaietako bat ematen duten eta kontratu mugagabea duten lan kontratuko irakasleek, Erljio irakasleek izan ezik. Lege proiektuarekin batera doan Memorian, ikastolak publiko bihurtzean Sailaren mendera igaro ziren lan kontratuko irakasleak zenbat eta non ziren azaltzen da, eta ikastola askotan irakasle gehienak dira; hartara, karrerako funtzionarioen egoera berean daudela argudiatuz, Sailak irakasle horiek hautagai izateko aukera ematen du.

Kontseilua ere bat dator: zuzendari lana egiteko irakasle egokienak bilatzen badira, kontratu mugagabeko irakasle horiek kontuan eduki behar dira.

b) Aukeratzeko prozedura

Funtsean, Kontseilua ados dago 4 urteko aldi bakar batera mugatu behar dela luzapen automatikoko mekanismoa ebaluazio positiboaren ondotik, izan ere, LOE Legeak autonomia erkidegoek erabakiko dutela dio. Hala ere, etorkizunean, beste lau urterako luzapena emateko ebaluazio mekanismoak arautu behar direnean, mekanismo horiek sendoak izan daitezela eta Eskola Kontseiluaren balorazio positibo esplizitua jaso dezatela eskatu nahi dugu.

Hautagaien atalean, EAEko hizkuntza berezitasunak kontuan hartu behar dira merezimenduen baremoan. Gizarte honen gehiengoak proiektu elebiduna partekatzen du eta hezkuntza sistema funtsezkotzat jotzen du helburu hori erdiesteko, hortaz, komenigarria da hezkuntza komunitateak zuzenduko dituztenak ere elebidunak izatea eta HE2 edukitzea. Hezkuntzan, ardura txikiagoko beste postu batzuetan, eskatu egiten da baldintza hau betetzea.

Beste alde batetik, Lege proiektuaren 4. artikulua, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 33.4. artikuluko 3. paragrafoaren idazkera berria aipatzean, zuzendaria “demokratikoki aukeratuko dela” esaten du.

3. paragrafo honetan esaten da halaber Batzordeak “kontuan izango dituela hautagaien ikasketa eta lanbide merezimenduen balorazio objektiboa eta zuzendaritza

proiektuaren balorazioa”, 33.2. artikuluko 2. paragrafoan jasotzen diren bi esapideren ildotik birformulatua: “aukeraketa... merezimendu lehiaketa bidez egingo da” eta “aukeraketa berdintasun, publikotasun, merezimendu eta gaitasun printzipioen arabera egingo da”.

Testuinguru honetan, garapeneko araudiak zehaztu beharko du “demokrati-koki” horren esanahia, Aukeratzeko Batzordeak erabakitze gaitasuna edo bakarrik aplikatzeko gaitasuna duen heinean: ea benetan balorazio ahalmenik ba ote duen eta aukeratzeko prozesuaren emaitzan eraginik izan ote dezakeen –adibidez, zuzendaritza proiektua aztertzean–, edo deialdian zehaztutako baremoa automatikoki aplikatzera mugatuko den.

4.3. Prestakuntzari buruz:

Lege proiektuak, aldatzen duen Euskal Eskola Publikoari buruzko legearen 33.5. artikuluan, salbuetsi egiten ditu zuzendari lanetan bi urte edo gehiagoko esperientzia duten hautagaiak hasierako prestakuntza programa egitetik, hala ere, jarraitzen du, “eguneratzeko eta zuzendaritza eginkizuna hobetzeko Hezkuntzako Administrazioak antolatuko dituen ikastaroetan eta beste jardueretan parte hartzera behartuta egongo dira”.

Bi urteko esperientziak hasierako prestakuntzaren ordeztu balio badu, eta Euskal Eskola Publikoari buruzko legeak, oraingo honetan aldatuko den 33.3. artikuluan esaten bazuen “Hezkuntzako Administrazioak urtero egingo duela hasierako prestakuntza eta hobekuntzako ikastaroetarako deialdia funtzionario irakasleak zuzendari kargurako gaitzeko”, egokiago iruditzen zaigu eguneratze eta hobetze lanetan ere aukeratzeko zuzendari guztiak egoera berdinean egotea. Horrenbestez, Euskadiko Eskola Kontseiluak proposatzen du aldatutako 33.5. artikuluan bi gai horiek bi paragrafotan bereiztea, eta bigarrenean, eguneratzeko betebeharra zuzendari guztientzat dela adieraztea, behintzat prozesu honetan aukeratuta atera direnentzat.

4.4. Ebaluazioari buruz:

Kontseilu honi interesgarri iruditzen zaio LOE legean jasotzen den zuzendariaren ebaluazioa zuzendaritza taldeko beste bi figuretara orokortzea EAEn, Lege proiektuak planteatzen duen bezala, eta ebaluazio positiboa lortzen dutenei nolabaiteko aitortpen pertsonal edo profesionala eman behar litzaieke, erabakitzen denaren arabera.

4.5. Zuzendaria ordezkatzeari buruz:

Positiboa dela uste dugu ikasketa buruak zuzendaria ordezkatzeko mekanismo automatikoa ezartzea, gaixotasun luzeko kasuetan, besteak beste, zuzendariorderik ez badago. Euskal Eskola Publikoari buruzko legeak eta LOE legeak aurreikusten zuten zuzendariordeak ordezkatzeko zuela, kargu hori zuten tokietan, eta oraingoan lege proiektu honek bermatzen du zuzendariaren egitekoak bete egingo direla, izan ere, ordezkapena ikasketa buruari esleitzen dio, zuzendariorderik ez dagoenean.

4.6. Zuzendariaren eskumenei buruz:

Irizpen honen 2. puntuan adierazten den bezala, lege proiektu honek, 5. artikuluan (Euskal Eskola Publikoari buruzko legearen 34. artikuluekin loturik) planteatzen dituen zuzendariaren eskumenak bat datoz LOE legeak 132. artikuluan zehazten dituenekin, kopuruan zein edukian, desberdintasun txiki birekin.

Horietako bat i) funtzioan dago, izan ere, LOE legeak dio zuzendariari dagokion gobernuko organoaren erabakiak betearaztea, eta lege proiektuak, berriz, gehitzen du “akordioak gauzatzea eta betetzen direla bermatzea” (erdarazko bertsioan besterik ez da agertzen bikoizketa hori, euskarazkoan LOEren adierazkijide berbera mantentzen baita: “erabakiak betearaztea”).

Erdarazko bertsioari jarraiki, gure iritzian, Ordezkaritza Organo Gorenaren erabakiak, zuzendariak ez ezik, beste hainbat subjektuk bete behar dituzte, eta zuzendariak ahaleginak egin behar ditu subjektu bakoitzak akordioan jaso duen egitekoa bete dezan. Hala ere, nekez bermatu dezake bere esku ez dagoena. Hortaz, betetzearen kontrolatzeko funtzioa nabarmendu nahi izanez gero, hau jar liteke: “akordioak gauzatzea eta betetzen ote diren zaintzea”.

5. Zuzenketa txikiak

- Aitzinsolasean, zuzendarien ebaluazioa aipatzen da aitorten pertsonal eta profesionalarekin loturik, baina gauza bera falta da ikasketa buruarentzat eta idazkariarentzat; artikuluetan esaten dena biltzea besterik ez da (33.10 artikulua, azken paragrafoa).
- 2. eta 3. artikulua irrazazko irakurriko lirateke zehaztuko balitz Euskal Eskola Publikoari buruzko legearen 31.2. artikuluan aldatzen diren eskuduntzak ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenarenak direla.
- 4. artikuluan, baldintzak zehazten direnean (Euskal Eskola Publikoari buruzko legearen 33.3. artikulua), azken paragrafoan hau dio: “... aurreko atalean zehaztutako baldintzetakoren bat betetzetik salbuetsi ditzake hautagaiak”. Aurretxoan epigrafe zerrenda bat dagoenez, hobe legoke honela adierazita: “... orokorrean ze-

haztutako baldintzetakoren bat betetzetik” edo “... aurreko baldintzetakoren bat betetzetik”.

6. Lexiko kontuak

Kontseilu honen aburuz, Lege proiektu honetan lexiko aldetik badaude bi gauza era egokienean jarrita ez daudenak. Testu osoan, proiektu hau aurkezten duen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila aipatzeko, “Hezkuntza gaietan eskumena duen Sailak” jartzen du.

Ez dakigu zertan laguntzen duen esapide horrek testua ulertzen eta zergatik jartzen den horrela. Zehaztasun eza eta elipsia desegokiak dira berez eta, gainera, hezkuntzarekin loturik “eskumena” hitza erabiltzean okerreko adiera bat sortzen da. Izan ere, curriculumari buruzko dekretuan zehazten denez, hezkuntza gaitasunak gaitasun orokorrak ere diren aldetik, ikastetxeetan, familietan, komunikabideetan eta beste eremu batzuetan eskuratzen dira –aski da hizkuntza gaitasunetan edo gizarte gaitasunetan edota autonomia pertsonalaren garapenean pentsatzea–, hortaz, ulertu behar dugu ez dela bakarrik Eusko Jaurlaritzako Sail bat herritarren hezkuntzaren ardura duena.

Horrenbestez, Euskadiko Eskola Kontseiluak eskatzen du esamolde ilun eta desegoki hori kendu eta izen berezia erabiltzeko: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, edo bestela, Hezkuntza Administrazioa.

Bigarren gaia maskulino eta femenino formak ondoz ondo erabiltzea da. Kontu hau indarrean dauden estilo liburuen arabera berrikusteko eskatu nahi dugu.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2007ko urriaren 22a

IDAZKARI TEKNIKOA,

Sinaturik: Eva Blanco

Ikus-onetsia

KONTSEILUBURUA,

Sinaturik: Konrado Mugertza

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA
SAILBURUA.